

AKTA

2019ko martxoaren 28an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta zazpi korporakide bildu dira; hiruk ezin etorria adierazi dute.

Ondorengo akordioak hartu dituzte.

1.- Udalbatzarrak 2019ko urtarrilaren 31n buruturiko saioari dagokion akta onartzea. Akats bat gertatu dela eta hurrengoan onartuko da, hala badagokio.

2.-2019ko aurrekontua,plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda.

LEHENA.- 2019ko ekitaldirako Udal Aurrekontu proiektua onartzea.

BIGARRENA.- Aipaturiko Aurrekontua jendaurreko erakusketan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hamabost lanegunetako epean aztertu eta egoki jotzen diren zuzenketa eskaerak aurkeztu ahal daitezen. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da erabaki berrien premiarik gabe.

2019ko plantila organikoa eta lanpostuen zerrendari dagokionean:

LEHENA.- 2019ko plantila organiko eta lanpostuen zerrenda onartzea, ondorengo eguneraketarekin:

2019 PLANTILA ORGANIKO ETA LANPOSTUEN ZERRENDAN EGIN BEHARREKO ALDAKETA PROPOSAMENA

PLANTILA ORGANIKOA

Lanpostua	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera
Eginkizun anitzetako langilea	6	C2	2J+4H
Eginkizun anitzetako ofiziala	1	C2	H
Brigadako enkargatua	1	C2	H
Garbitzailea	4	E	2J+2H

LANPOSTUEN ZERRENDA

Izena	Lanpostu kopurua	Betetzeko era	Taldea	Lanpostuen Osagarria	Dedikazioa	Menpekotasuna	Talde edo Eskala	Azpieskala	Hizkuntza maila	Derrigortasuna	Titulazioa
Eginkizun anitzetako langilea	6	L	C2	15	Osoa	Ofiz.Langilea	Zerbitzu eta obran lanak	Zerbitzu Berezia	1	A)02-12-31 B)00-06-30 C)01-04-05 B)19-03-28	LH1-Esk.Graduat. B1-Gida karneta
Brigadako enkargatua	1	L	C2	19	Osoa	Langile Koordin.	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	3	19-03-28	LH1-Esk.Graduat
Garbitzailea	4	L	E	10	3-%100 1-%75	Garbitasuna	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	1	2005-01-20 2019-03-28	Eskola Ziurtagiria

BIGARRENA.- Erabakia jendaurreko erakusketan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hamabost lanegunetako epean aztertu eta egoki jotzen diren zuzenketa eskaerak aurkeztu ahal daitezen. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik



ZESTOAKO UDALA

aurkezten ez bada, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da erabaki berrien premiarik gabe.

3.- 2018ko aurrekontuaren likidazioko komunikazioa.

“ZESTOAKO UDALEKO 2018KO AURREKONTU LIKIDAZIO ONARPENEN UDAL BATZARRARI KONTU HARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioan, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatuaz, 2018ko ekitaldirako aurrekontuen jarraibidea onartzen da.

1. eta 3. erregela betetzen ez dituzten entitateek, planaren orde, kontu-hartzaileak sinatutako komunikazio bat aurkeztu diezaioketela Udalbatzarrari esaten da.

Kontuan izanik 2018eko abenduaren 31n, Zestoako Udalaren zor bizia, guztira, 2017an likidatutako sarrera arrunten % 4,92 dela. Kalkulua egiteko, 2017ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018rako aurreikusitako amortizazioak.

Bestalde, aipatu behar da, azken urteetan Zestoako Udalaren zor biziak beheranzko joera nabarmena izan duela, norabide berean jarraituta 2024an udalaren zorra zero izatera iritsiko delarik.

Gehitu behar da, 2018ko aurrekontuaren likidazio honetan egonkortasun gastuaren arauak ez betetzearen arrazoi nagusietakoa, inbertsioen atalean gehitu diren ekintzak direla. Ekintza hauek, 2018an bakarrik izango dute eragina eta ez dute inolako kargarik suposatuko etorkizuneko ekitaldietan.

Azkenik, egiaztatu daiteke Zestoako Udalaren finantza iraunkortasuna bermatua dagoela, egun ditugun datuak kontua hartuta.

Zestoan 2019ko martxoaren 14an

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA”

4.- Udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera bereziari buruzko ordenantzaren aldaketa.

LEHENA.- Ingurumen batzorde informatiboak Zestoako Udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena onartzea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuan azaldu den akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan jendurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Hartutako erabakia, behin betikoa izango da beste akordio baten beharrik



ZESTOAKO UDALA

gabe, jendurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

5.- Kiroldedia handitzeko eta birgaitzeko obrako kontratu aldaketa.

Korporazioa osatzen duten hamaika zinegotzietatik bertaratutako zortzitik aldeko sei zinegotzien adostasunarekin, eta bi zinegotzien kontrako botoarekin, ondorengo erabakiak hartzen ditu:

LEHENA.- Zestoako Kiroldedia birgaitzeko eta handitzeko obren kontratua U.C.y R.U.S.L.-A.y U.S.A.rekin sinatua, aldatzea. 111.798,03 euro exekuzio materiala, gehi gastu orokorrak eta industri irabaziagatik 16.769,71 euro eta BEZagatik 26.999,23 euro suposatzen du, guztira 155.567,00 euro.

BIGARRENA.- Erabakia jakinaraztea U.C.y R.U.S.L.-A.y U.S.A.i eta hamar laneguneko epean aurkezteko eskatzea kontratuaren aldaketa sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Kontratatzailearen profilean erabakia argitaratzea.

6.- Erregu eta galderak.

Bidegorriaren inguruan web orrian eta prentsaurrekoan adierazi zen hitzarmen bat zegoela, eta ez dagoela konstantziarik hitzarmen horri buruz. Eta hitzarmen hori ba al dagoen galdetu da. Alkateak hitzarmenik ez dagoela adierazi du.

Eta beste gairik ez dagoenez, 21:17ak direnean amaitutzat eman da Udal Batzarra.